

# STEE-EILAS



## **STEE-EILASek bat egiten du HERRIRAren deialdiarekin**

STEE-EILAS sindikatuak bat egiten du HERRIRA mugimenduak Xabier Lopez Peñaren heriotza eta euskal preso politikoek modu iraunkor eta bortitzean pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak salatzeko larunbata honetan, *“Berriro gerta ez dadin, salbuespen neurriak eten. Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea”* lelopean, apirilak 6an, 17:30tan Bilboko Casillatik abiatuko den manifestazio deialdiarekin, eta dei egiten diegu hiritar orori parte har dezaten.

STEE-EILASek euskal preso politikoek bere oinarrizko eskubideen kontra jasaten ari diren zaurzapena salatu nahi du eta aldi berean gaixorik dauden presoek berehalako askapena, Parot doktrinaren behin betiko derogazioa eta haien osasun eskubidea bermatua izan dadin eskatzen du. Bortizkeriarik gabeko egoera berri honetan jarrera hauek ez dute inolako zentzurik eta bake eta normalizazio politikarako bidean oztopoak besterik ez dira.

Ez dugu heriotza gehiagorik nahi, ez dugu sufrimendu gehiago nahi. Bide horretan, Espainiak eta Frantziak egun mantentzen dituzten jarrera extremistak guztiak alboratu eta euskal preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespen neurriak eten ditzaten eskatzen dugu.

## **STEE-EILAS sindikatuaren Nazio Batzorde Iraunkorra**

### **STEE-EILAS APOYA LA CONVOCATORIA DE HERRIRA**

El sindicato STEE-EILAS hace suyo el llamamiento de la plataforma HERRIRA y anima a toda la ciudadanía a participar este sábado 6 de abril en la manifestación que se va a realizar en Bilbo a las 17.30 horas desde La Casilla, bajo el lema *“Nunca más. No a las medidas de excepción (Berriro gerta ez dadin, salbuespen neurriak eten). Derechos humanos. Resolución. Paz”* en denuncia de la muerte de Xabier López Peña.

STEE-EILAS denuncia la vulneración flagrante y permanente de los derechos humanos de las y los presos políticos vascos y exige el fin de la dispersión, la excarcelación de los presos aquejados de enfermedades graves, la no aplicación de la doctrina Parot y el respeto al derecho a la salud de este colectivo. Estas actitudes carecen de sentido, más si cabe, en un escenario de cese de violencia y se convierten en un obstáculo añadido para la consolidación del proceso de paz y normalización política.

No más muertes, no más sufrimiento; pedimos a los Estados español y francés que abandonen de inmediato sus posturas extremistas y acaben con todas las políticas penitenciarias de excepción.

Comisión Nacional Permanente de STEE-EILAS

Bilbon, 2013ko apirilaren 4.